

50 olerki gandiagatar

Berrogeita hamar urte (1951-2001) hitza zizelkatzen

ATARIKOA

Idatz & Mintz literatur aldizkariak B. Gandiagari opetsi deutzan zenbakiagaz batera, olerkariaren obraren erakusgarri modura-edo, egoki eretxi deutzagu antologia modukotxu bat atondu eta literatur zaleari eskeintzeari.

Olerki zaleak baeukan lehendik be, elorrien lagunaren poemen bildumarik: batetik, *Ahotsik behartu gabe* (Erein, 1997) liburuagaz batera poetak berak grabatu eta CD formatuan argitaratutako "Poema irakurketa"; eta, bestetik, Koldo Izagirrek oraintsu atondutako antologia (Poesia kaierak, Susa, 2001). Bestaldetik, Donostiako Musika Hamabostaldiak 2001.eko abuztuaren 17an Gandiagari Arantzazun egin eutsan gorazarrean "Bitoriano Gandiagagogoan" izeneko bildumatxua banatu zan, abeslari

eta errezitatzaleek omenaldian erabilitako testuak batzen zituana, hain zuzen be*.

Irakurleak eskuetan daukan hau, poetaren gorazarre modura pentsatua da, eta egia esan, buruak eta azterketa zehatzen legeek agindutakoa baino harata-go doa. Izan be, bihotzetik hara jaulkia da eta sentimenduen pentzudan kateaturik dagoz olerkiak. Argitarapenaren mugak aginduta 50 olerkira mugatu dogu eta 50 urteko ibilbide poetiko parebako baten isla izatea gura geunke. Hasierako olerkiak 1951. urtearen data daroa bere baitan, nahiz eta Gandiagak hurrengo urtean argitaratu *Euzko-Gogoa* aldizkarian, Orbelaun ezizenez argitaratu be. Azken poemak ostera, Mendatako olerkariaren heriotzaren (2001-02-21) inguruan argitaratu ziran haren etenbako olerkigintzaren azken katabegiak bailiran. Bien bitartean, Gandiagaren sei liburuetako olerkiez ganera, meatarrak euskal olerkari biri, Gabriel biri

* Irakurleak eskuetan daukan olerki-bildumatxuau inprentan egoala, zezeilaren 4an, EHUK *Bizitza itxaropen delako* izeneko antologia aurkeztu eban. Olerkien aukeraketa eta hitzaurreak Amaia Iturbiderenak dira.

(Aresti eta Celaya), opetsitako poemak be ikusi ahal izango ditu orri txikerrotan murgiltzen danak. Olerkariaren bizitzako bost hamarkada oso hartuko leukiez euren baitan, beraz, hemen dituzun poemok.

Zerrenda ikusita, irakurle Gandiaga zalea atoan ohartuko da aukeraketan *Elorri* liburuak daukan nagusigoaz. Baina esanda daukagu aukeraketa egiteko orduan bihotzak eta sentimenduek agindu izan dabela. Esan bakoa da abeslarien ahotan-eta gehien entzun izan dan poesia gandiatarra, kutsu sozial eta aberkoia eukana izan dana. Bego. Bihotzari, baina, "Itzaren oiartzun sorra / -ez muiña, / ez otsa-, / zerbait xamurra / ozta lioken / kili arin aura" gustagarriago, berezkoago, gandiagatarago begitandu.

Baina Gandiagak Jainkoaz eta naturaz ganera, gizadia eta Euskal Herria eukazan bizikizun eta kezka iturri nagusi. Eta kezka bizi horreetatik sortu ziran 70eko hamarkadan eta Oteizaren mailukaden ariora, hainbesteko zabalkundea lortu eben tiriki-tauki poetikoak eta hitzezko zizelkada ozenak. Ozentasun hori, baina, Artason baretuko da. Hantxe berraurkituko dau poetak bere herriaren iragan mitikoa, lotan dago-

an ama kulturala. Hantxe sosegatuko da eta bertako lurragaz birbataiatuko dau bere burua.

Geroago, Madrilen hain bere eban hizkuntza, eskas, kolorga, ezgauza begitanduko jako uritzarraz eta hango ingurumariaz jardun ahal izateko: “Kantagairik asko, baina / ez dakit nola kantatu, / kantagairik asko, baina. / Hizkuntza ez zait iristen, / ala ezin dut moldatu”. Beheraldia etorriko jakon gero poetari, eta krisi pertsonal gogorra. Baina meatarrak etsi ez, eta *denbora galduaz* bere barru biluzia erakusten deusku, eta bere sufrikario eta pairamen iturriak papereratuaz asaskatu egiten jaku. Eta perfekzionismoaren zama astuna eroian gizona samurtu egiten da, eta xalotu, eta agobiatzeraino eroan eben kezkek eta ezin baztertuko betebeharrak albortuaz, lasaitasun pertsonala idoroko dau, oreka pertsonal eta kreatiboa. Aurrerantzean, baina, osasunak, ez eutsan larregi lagundu bere buruagaz adiskidetuta egoan poetari, barneko bakea lortu eban gizaki minduari. Halan eta guzti be, barruko bake horrek lagunduta joan jakun mundutik frantziskotarra, Arantzazuko anaia Iñaki Beristainek dinosku-

nez: “Azken egunotan berarekin egotea gozamina izan da, profeta izan dugu”.

Poetaren heriotzagaz umezurtz geratu ziran elorriak, triste Arantzazuko pagadiak eta negarti “xirimiri txanka mea”. Idazlearen lumakada poetikoen tiriki-taukia be, ez da barrero entzungo Arantzazuko troka lakarretan. Halandabe, haren poemak geugaz geratu dira eta euren bitartez, udabarrero loratuko dira elorriak gure gogo-bihotzetan eta udagoienero emongo deuskuez pinporta gorri ugari. Udagoienero orbelen fereka sentituko dogu eta xirimiriaren ikutua sentitzean, “Bidean aurkitu nau / arreba garbiak. / Kolkoraiño sartu jat. / Maite nau euriak!” esan ahal izango dogu. Harek zizelkatutako berbak tiriki-tauki gozo, irudi atsegin eta itxaropenezko mezu izango dira gure belarri-begi-gogoetan. Horren guztiaren erakusgarri bat eskeini gura leuskizu zeuri, poesia maite dozun euskaldun horri, antologia xume honek.

Iñaki Sarriugarte Irigoien

Neure ama jazten

Neure arrebatxua jazten zendun lez
Neu be jantzi ninduzun, ama, bein batez.
Zapi zuri garbiak bedar usaiñez,
Jantzi txukun beroak pitxi politez
Nire amak jazten.

Orain nik, ama ori, zeu jantzi naiez
Soñeko bat eunduko olerki emez.
Neuk be zeu bildu gura oial bigunez
Ume nintzela biltzen ninduzun maitez,
Jantziz abesten.

Ez egidazu esan atso zarenik,
Apañez soinekotu ez zindezkenik.
Gaur be niretzat, ama, zeu ederrenik.
Orain arpegi ori mazkal, zimelik,
Ondo baiatortsu!...

Ez esan ba taiua galdu dozunik
Galatena obetzat ezpai-daukot nik...
Laztan ori bizitun zaitudalarik
Ez dot beste iñor be maiteagorik:
Zeu-zeuri nagotsu.

Eutsi mosu bat, kutun, ta itxi jazten;
Jantziez ekingo nik kantu abesten.

Bekoki ori zimur ageriarren
Gaztea zara, andre, amak oi daben
Gaztetasun bidez.

Zurelakoak inoiz ez dira zartzen:
Semietan baitira betikotutzen.
Eta begira, ama, zelan gatozen
Begira gaztiena neskato lerdan
Barrero bazintzez.¹

¹ *Euzko-Gogoa*, 11/12, 1952, az.-gab., 4-5. or. Olerkiak bost ahapaldi bikotx ditu guztira. Amaieran ohartxu haxe irakurri daiteke: "Donostian, 1951'go Abenduaren 21'an, irugarren saria eraman zuan olerkia". Ikus olerki honen moldaketa *Elorri*-n, 249. or.

EMENTXE dago arkaitza.
Ume nintzanean,
soin gabeko poema bat
usmatu neban, eziña,
arkaitz zurtz onen ganean.

Ementxe dago arkaitza;
ementxe poema,
susmo maite bat oraindik,
soin gabeko ta eziña,
arkaitz zurtz onen ganean.²

² *Elorri*, 27. or.

NEURE itzaren billa
-ez gauzetan,
ez jakintzan-,
neure itzaren billa
nabil... amesetan.

Ez-bai utsa dan arnas bat,
zerak doi aitatzekoa,
berba mugarik bakoa
nai dot: gomuta zaarrek
dakien izkuntzakoa.

Itzaren oiartzun sorra
-ez muiña,
ez otsa-,
zerbait xamurra
ozta lioken
kili arin aura.

Ez ipuirik. Doi-doi zera:
era bako
itzal gozo...
Ez irudi, aaztutako
pozen miña baiño.

Lotu bako berba nai dot:
soiñu galdu bat lakoa;
usain askatutakoa;
edo kolore pintatu bako
dan ez dan-ezkoa.³

³ *Elorri*, 28. or.

ARKAITZEKO elorria
loratu danean
txoriak ezin dira
kabitu airean.

Argia garbitu da,
otzandu aizea,
arkume-usain gatx eta
samurrez aidea.

Orriztatu da poza,
goitu dau esia.
Epailleko xoramen,
zuri, elorria.⁴

⁴ *Elorri*, 36. or.

BA-ZOAZ ta ba-zatoz,
urteroko urtez,
elorri zaar ori,
ikuspen bat legez.

Ba-zoaz, baltz... mamu...,
arkaitz eta basoz,
neguko ekaitz-bide
odeitsuez..., urrun
illun galdu arte.

Ba-zoaz..., ta ba-zatoz,
ikuspen bat legez,
elorri zaar ori,
urteroko urtez.

Bizi ta loretsu,
arkaitz eta basoz,
sortaldeko eguzki
Udalengoakin,
ba-zatoz, pozgarri.

Ba-zatoz..., ta ba-zoaz,
ikuspen bat legez,
nire min eta pozak
sarriago dagien
aldabera bidez.⁵

⁵ *Elorri*, 40. or.

ZARPIL...

geure bizitz zarpilla letz,
zarpil elorria,
bere betiko samin zaarraren,
bere karraxia.

Arkaitzean,
geure bizitz zarpilla letz,
bigurri ta nabar,
arrats-beerako laru aurrean,
lander eta bakar.

Lander eta bakar,
zarpil,
bere biziko zarraski,
milla naigabek ondamendua,
ez lora bat et'ez orri,
etsi, t'ezin etsi,
lakar t'errukarri,
apal ta urratu, joran ta larri,
arkaitzeko antsi,
samin zaarraren betiko erpe
tarteant, bigurri,
neguko elorri,
gorri ta laborri,
geure bizitza zarpilla legez,
zarpil maitagarri.⁶

⁶ *Elorri*, 47. or.

ARKAITZEZ gora, elorri,
astrapalatsu, basati,
arkaitzez, garratz, eleiz arkaitza
azkar dator, barri.

Arantza ta agin biziki,
lei gogor baten itzuli,
lakar ta lakatz, ba-da akatsezko
neurri ta gauzen ausardi.

Goiartuz troka ta mendi,
aldiko bekoki larri,
oiñarri zaar gain, iñoizko gogo-
aro bat nai dau giltzarri.

Gorri torre t'orma ta arri,
indar ta altura iratzarri,
arkaitzez, garratz, eleiz akaitza,
irme ta aidor, barri.⁷

⁷ *Elorri*, 62. or.

XIRIMIRI txanka meia,
nora barik ta bustia,
baso aldetik agertu da gaur,
artzaiek, tontoz, jaurtia.

Arre-argi zabaldia,
loratuten elorria.
Erlustu barri teillatu zaarrak,
garbi, bidean, arria.

Laiñoen aurtxo mengelto,
mokoti eta xitalko,
negarrez dabil, zer oker egin
ez dakiala, luzaro.

Eta txoriak kantari
eta jendea lanari.
Ta xirimirik, geldo ta geldi,
zer oker egin ez daki.⁸

⁸ *Elorri*, 69. or.

ITURRITIK ur eta ur.
Potingoa kizkur.
Zaratea beti bat,
garbi, leber, samur.

Pagadian bi ardi,
bi iretargi-zati.

.....

Pagadian iturri,
ardi ta iretargi.⁹

⁹ Elorri, 77. or.

ITURRI menditarra
ira gazte-pean.
Ardiak ba-dakie,
nun dagon; artean...

Iturriak zidarra,
irak esmerala.
Oi, edertasunaren
eder eta apala!¹⁰

¹⁰ *Elorri*, 78. or.

...T'EURIA.

T'ozkirri ta argia
itogin-zarata
saltari ta alaia,
klaustroko patio
barru ta gordean,
arra t'erdi luze
edo krabeliña
zuri bat jagia.
...T'euria.

Kanpoan baiño be
ariman ba-litza
euria, beti lez;
ta itogin-zarata,
beti lez, alaia,
beti lez, barruan,
arra t'erdi luze
edo krabeliña
zuri bat jagia.
...T'euria, t'euria.¹¹

Argi ta saltari
zarata, beti lez,
betiko beti lez,
ta, alaia,
kanpoan baiño be
ariman ba-litza,
arra t'erdi luze
edo krabeliña
zuri bat jagia.
...T'euria.

¹¹ *Elorri*, 79. or.

BEGIRATU dot, ta, ixiltasunak
bakartasunez bildurik nauka.

Klaustro mortuan gelditasuna:
aize gabeko ur lo bat dago.

Ez dagi arnas aide argiak
ez-ta zirkiñik mututasunak.

Noizik-beiñeko pausoek, praille bakarra,
gereiza dira..., gauza baiño.

Sortzen ez diran berbak badautse begirunerik
zerraldo datzan aide zuri ta santuari.

Begiok emen. Begiok, diñot,
eta arimea jabetu jataz, entzumen utsez,
amestu nitun bazterrak baiño arutzagoz.

Eta biotzak
komentutzar au, neurea, diño,
gogobete ta nagusikiro,
berekaxa.¹²

¹² *Elorri*, 86. or.

POEMATXUOK ba-doaz,
zer nai daben jakin gabe,
neure arima au bidez doan lez,
arantz eta lore.

Arantz eta lore doaz,
ez euskaldun-biotz gabe...
Euskaldun batek zer gura dauan
gatx jakin leiteke.

Ezin aitu poema ok
biozkaden barri gabe.
Elorri berak lore ta arantzak...
Pozak, miñen ume.

Elorri-loren tankeraz,
txiki ta, eskasik gabe,
batzuek lainoz, besteak argiz
edegi dirade.

Baiña loreak ez dira
zabaltzen zentzunik gabe...
Zergaitik diran... itaundu
egin bear jake.¹³

¹³ Elorri, 95. or.

URRUNDIK naitortzu.
Kexuz, nekatuta.
Ainbeste bide ibilli
ditut erriz-erri.
Jenteak, iguin baileust,
begituten deusta.
Ain arlote ta ain bakan
bide dot irudi...
 Jenteak, iguin baileust,
 begituten deusta.

Abitu latz uxatiz,
ona, bakarrik, ni.
Eurak, arin jantzita,
iñogaz dabilta.
Zenbat irri daroen
-irri bekaitzgarri!-
lillura argi maitetsuz,
gerizpe t'ondartza!...
 Zenbat irri daroen
 -irri bekaitzgarri!-...

Erruz galdu danaren
damuz naitortzu,
bizikera au ez baida
beste gizonena.
Eremuak naroa,
pausoak izutu.

Ain da inguruko utsa
sor ta nabarmena...

Eremuak naroa,
pausoak izutu.

Nire barru gaztean
illunbea dago.

Zeuri emon nintxatzun
t'etzaitut ikusten.

Entzun bear banozu,
ordua da, Jainko.

Bakarrik nago, zeure
lotsaz, zoratuten.

Entzun bear banozu,
ordua da, Jainko.

Enparauak ba-doaz

-alai, bidez-bide-,

besoan beso lore

ziur ta kutuna.

Zeurea nazalako

bakar izten nabe.

Zuk ez ete daukazu

besorikan, Jauna?...

Zeurea nazalako
bakar izten nabe.¹⁴

¹⁴ *Elorri*, 120-121. or.

ARRIZKOA zara.
Iribarrezko arri
triste t'otzezkoa.

Elorrian zagoz.
Iribarrezko triste
irribarrezkoa.¹⁵

¹⁵ *Elorri*, 162. or.

LUR busti au pozik,
poz bustiez.

Lur gaixo au pozik,
poz gaixoez.

Lur makal au pozik,
poz makalez.

Poztu da nire lur au
poz gaixo makalezko
bustitako pozez.¹⁶

¹⁶ *Elorri*, 179. or.

LURREZKOAK gara.
Busti ta tristeak.
Pozak, noizik-bein, otzik,
labur ikertzen ditun,
landerren umeak.¹⁷

¹⁷ *Elorri*, 185. or.

GAUZAK, Jauna, pozik dagoz,
baiña gizonak min dira.
Nire arima tristeki dago
izadiari begira.

Izadiari begira,
gauzetan poza ageri da.
Gauzak pozik dagoz, Jauna,
baiña gizonak min dira.

Baiña gizonak min dira
betiko joran min batez.
Nire arima tristeki dago
izadiari begira.

Baiña gauzak zear, urrun,
zeuganaiño begituta,
zure biotza gizonengana
makurturik ikusten da.¹⁸

¹⁸ *Elorri*, 190. or.

ARIMA,
bakarrik,
soiñaren barnean.

Illunabarra da.

Ta ez dago argirik
nire biotzean.¹⁹

¹⁹ *Elorri*, 191. or.

JOANGO naz.
 Ez dot urrerik itziko
 t'ez dot eroango.
 Joango naz ixillik,
 ta, nork jakingo dau,
 iñoiz, il nintzanik,
 bizi nazanik ia
 iñork ez badaki?
 Nire ama, nire anaiak,
 nire prailleak,
 nun izango dira?...
 Umetan lez dagoke
 nire gorpua lo
 ama-lurraren altzo
 geldi ta sakonean.
 Etzanik lagako dot,
 luze ta argi gabe,
 amesik gabeko gau
 geldi ta luzean.

Nire praille gajoak
 eortziko nabe,
 gajoak, nire ama
 ta anaiak bai dira.
 Bilduko ditue
 nire esku lazatuak
 beti estutu neban
 gurutzari lotuz.
 Jantziko deustie
 limosnako neure
 betiko abitua
 t'eroango nabe
 -nungo obi barrira?—
 maitasunez.
 Algodoa aldendurik
 alkoola doaken lez
 aldeko dot aidera,
 argi ta garbiki,
 Jaunaren bi eskuak
 dodazan kabira.²⁰

²⁰ Elorri, 200-201. or.

KORUKO gerizpe
gregorianuan,
zer bake gozoa!
Emen bear neban
arratsalde ontan:
Intzenu-gandua
lo dagon lekuan!

Ez dago aizerik.
Aidea bakarrik,
eta ixiltasuna.

Bide asko zear
joan da jendea.
Berbotsa joan da ta
galdu da azkenengo
soiñu-zaratea.

Bakar geratu da
jai-arratsaldea.
T'emen barrero be
praille ta ixillezko
betiko bakea!²¹

²¹ *Elorri*, 206. or.

UDAGOEN-USAIÑA
arratsalde barne.
Orri igartuak beera
geldiro ta bare.

Zerua ta odeiak
urdin, more, gorri.
Erroiak artotzetan
baltz eta kraz-lari.

Aidezko zerbait dabil,
gupera ta garden,
gauzen ertz eta margo-
argiak itzaltzen.

Gautze ta joran ordu.
Dana da ezpan fin
eta azken musu baten
atsegin eta min.

Lurra adore labanez,
bigun eta epel.
An-emenka zugaitzak
orbel t'orbel t'orbel.

Erroiak jagi ziran.
Piñuak zuzmurrez...
Begiotan malko bat...,
ezin-ondakiñez.²²

²² *Elorri*, 235. or.

LANDA orlegian,
 zugaitzen billoixa,
 laino baju zuri
 t'auri geldiar,
 zuzen ta baltzixka.

Laino baju zuri
 t'auri geldiar
 zelaiko orma zaarra
 t'erreka-zarata.

Ta, ardi-errenkada
 luze ta bustia
 -intxarri ta zaunka
 argi ta bustiak
 luzeko zuria-,
 zugazti ta landa.

Arratsalde motxa,
 laino baju zuri
 t'auri geldi t'auri.
 Ta... asagoko zaunka.

Ta, artalde-lurruna
 t'oiartzun koloka...
 Ta zugaitz billoixak
 t'orma zaar illuna
 t'erreka-zarata.²³

²³ *Elorri*, 236. or.

GURARI-ITXASOKO

ustezko ondarrean,
iretargi-apar
anpuluz guztia,
geldi-geldi nire
begion ontzia,
elorri zaar baten
altxorra barnean.

Ames eta susmo-
gabaiak aidean
ta izaro epela
altu t'edegia.
Emen lagako dot
ontzikada argia
ta arima, paraje
lirazko soillean.²⁴

²⁴ *Elorri*, 260. or.

BEGIAN jaio zan.
Nire eskuak ez eutsan
ikutu sekulan.

Iruntz-tanto bat zan
okaran baltzean.

Begian jaio zan.²⁵

²⁵ *Elorri*, 263. or

BAINA gu
nahastaile omen gara,
zeren Herriak ez bait du
hainbeste ixtimatzen euskara.

Baian, hala balitz ere,
gu, Herriaren alde;
zeren Herri bait gara gu ere.

Baina nik begiak saldu
behar izan nituen,
ezin bait nintzen bizi bestela.

Eta nik begiak
ez nituela maite
ere,
zenbaitek esan zuen.²⁶

²⁶ *Hiru gizon bakarka*, 97. or.

KEZKATZEN bait nau
herstutzeraino
neure Herriaren
zoriak.
Hautsiak ditu
arraunak eta
arrakak ditu
ontziak.
Zenbait lamina
bihurtu ziren,
zenbait badira
arraiak.
Baina zenbaitek
euskaldun nahi du
ta harenak dira
larriak.
Iraun nahi eta
ezin jarraitu
ihes dagio
biziak.
Agonia honen
laborriz dauzkat
ixurbatuta
erraiak.²⁷

²⁷ *Hiru gizon bakarka*, 99. or.

ESPERANTZARI leiho bat
zabaldu omen diote
bizi ahal ote den
ikusteko ere.

Baina apenas
ikusi duten
esperantzarik.
Desilusio usai bat
erten omen da leihotik.²⁸

²⁸ *Hiru gizon bakarka*, 109. or.

HITZ urri batzuk
dauzkat bakarrik,
ta abots kraskatu bat.
Ta neure urrian,
ez dut kitarrarik.

Ta, baneuka ere,
jotzen ez bait dakit,
alferriko nuke.
Ta, neure urrian,
ez dut musikarik.

Ta kantatzekoan,
abots kraskatu bat
dadukat ahoan.
Ta, neure urrian,
kantatzen ez dakit.

Ta, ezer ez dakit,
ta ezer ez daukat,
neure herria baizik.
Ta, neure urrian,
ez dut neure, kuasik.

Ta ezin etsi nik,
neure herria neure
dadin arte alik.
Ta, neure urrian,
nahia dut bakarrik.

Elorri jadanik,
itsik eta hutsik,
zinkurin behar nik.
Ta, neure urrian,
agian, alferrik.²⁹

²⁹ *Hiru gizon bakarka*, 127. or.

TIRIKI, tauki, tauki,
 mailuaren hotsa.
 Tiriki, tauki, tauki,
 mailuaren hotsa.
 Hamasei harri lantzen
 ari da Oteitza.
 Ai, oi, ai,
 ari da Oteitza.

Tiriki, tauki, tauki,
 mailuaren hotsa.
 Tiriki, tauki, tauki,
 mailuaren hotsa.
 Etsipen kolpe bat da
 ukaldi bakoitza.
 Ai, oi, ai,
 ukaldi bakoitza.³⁰

Tiriki, tauki, tauki,
 mailuaren hotsa.
 Tiriki, tauki, tauki,
 mailuaren hotsa.
 Mailua penazkoa,
 harria gau beltza.
 Ai, oi, ai,
 harria gau beltza.

³⁰ *Hiru gizon bakarka*, 147. or.

LURREAN

etzan zen

eta

etzan zitzaion

lurrari.

Zen guztiz etzan zitzaion

eta

lurra

ur

egin zitzaion.

Gau eta egun

egon zitzaion kontran,

arnasatan,

oinatz bakoitzean

barrentzen zitzaierik,

gozatzen zitzaierik

oihartzuetan.

Lurrari etzan

zitzaion eta

horregatik daki

lurra nolakoa den,

lurrak zer duen

zeruak abandonatutako

lurra eta bien

lurrean.³¹

³¹ *Hiru gizon bakarka*, 163. or.

ELGEA mendiko
Biurgain ondoan,
Artaso lotan dago,
lo geldi maltsoan.

Jentilen ama bizi,
tuntur eta magun,
sortalderantz etzin zen
eder eta bigun.

Pagadian pagoak,
zelaian belarra.
Dolmen gerta zitzaion
bistan duen bularra.

Nik ez dut esnatuko,
baina bai maitatu;
baina bai darion lehen
arnasatik hartu.

Eta bedeinkatu
-ta, hala bitza Jaunak-,
Sanbernardo Artason
dantzatzen diranak.³²

³² *Hiru gizon bakarka*, 164. or.

HILGO naz,
ta edertasunak
jarraituko dau lurrean.
Aleluia.

Hilgo naz,
eta jaustean,
joko dot lurra, lurrean.
Aleluia.

Hilgo naz,
eta erraiak
lurtuko dira lurrean.
Aleluia.

Hilgo naz,
eta hezurak
harri dirake lurrean.
Aleluia.

Hilgo naz,
eta lurrago
jarraituko dot lurrean.
Aleluia.³³

³³ *Hiru gizon bakarka*, 174. or.

LURRA hartu dut esku barruan,
eskutada lurra,
herriko neure lurra,
neure asaben lurra,
lurreko neure lurraren
lur puska ziuerra.

Harriaren arreba
lurra hartu dut esku barruan,
euskaldunen ama lur,
uraren kideko lur,
suaren sostengu lur
zuraren orpoko lurra.

Lur hotza, lur beroa;
lur hila, lur bizia;
lur nabar, lur argia;
lur astun, lur arina;
lur samin, lur atsegin;
lur gogor, lur gozatsu;
lur iraindu, lur maite;
lur jator samurra.

Lurra hartu dut eskuan
mun emateko,
besarkatzeko,
bularrean herstutzeko
luzaro.
Eta gero,

neure burua baino
gorago jasoz eskua,
burutik behera utzi dut
sorbaldaz behera jausten,
neure lur guztiz behera,
lurrezko bataioaren
seinaletan.³⁴

³⁴ *Hiru gizon bakarka*, 183-184. or.

KANTAGAIRIK asko, baina
 ez dakit nola kantatu,
 kantagairik asko baina.
 Hizkuntza ez zait iristen,
 ala ezin dut moldatu.

Eragin handiz didate
 gauzek barrua mugitzen,
 zirrara handiz barrua.
 Hobe nuke sentipenak
 hitzez baneki mamintzen.

Inork ez behartzen eta
 ezin etsi ihardun gabe,
 inork ez behartzen eta.
 Ezinbestezko lorra da
 idazteko grina ere.

Zirriborro ugaritan
 zirri ta borro jo ta ke,
 erdiminen ugaritan.
 Oraindik ez arren noizpait
 jalkiko dut hala ere.

Hauxe diot hizkuntzari
 eskatzen hainbat otoitzez,
 hauxe diot hizkuntzari:
 Madrilez aritzeko lain,
 Madrileko senti hauez.³⁵

³⁵ *Uda batez Madrilén, 48. or.*

EUSKARAK ez du errurik,
nik ez diot ezarriko,
euskarak ez du errurik.
Neu naiz errudun euskara
indartu ez zaidalako,
su-arma ez dudalako,
eskutan hartu ta zirt-zart
ez darabilkidalako
nonahi ta zernahitarako.³⁶

³⁶ *Uda batez Madrilén, 49. or.*

BAINA ikusten zuen gizona
eta gizona zuen ikusgai nagusi.
Etxe handien barrenez barren
ikusten zuen gizona.
Tamaina txikiko zerizkion gizonari.
Gizonaren ametsak eta asmakizunak
handi zirela ikusten zuen,
baina gizona txiki,
tentea ere txiki,
handiena ere apur,
beste gizonen gerizak jaten zuen
eta edozein tokitan kabitzen zen kabitua ezinena.
Taldea osatzen bazuen ere
edozein kalek, metroko tunelek
irensten zuen.
Rolls Royce-tik jaitsi zena
ez zen bat ere handi
COCA banketxeko atetan.³⁷

³⁷ *Uda batez Madrilen*, 99. or.

BAINA gizona galdu egin zitzaidala
ohartu nuen.

Hainbat ginen gizon eta emakume!

Eta gizonaren dimentsioa ere

galdu egin nuen:

Multzo ibilkor bat zen,

kolore asko zuen,

eta, animale fluido gisa,

mila tokitarantz mugitzen zen.³⁸

³⁸ *Uda batez Madrilén, 168. or.*

G. Arestiren aitormenetan

“Nire aitaren etxea
defendituko dut”, esan zuen
bat bateko suak.

Urez heldu zitzaizkionak
indartu egiten zuten;
adarrez eraso ziotenek
haserretu.

Alferrik ginen urruti
ilinti zaharrak gordetzen,

Errausle ta sortzaile zetorren,
bihurri ta martzal;

baliorik eta
etorbiderik zuena
harri ta herriren
begitan jarriki.

“Nire aitaren etxea
defendituko dut”, dio
“HARRI ETA HERRI”tatik
abots gorenak.

Deihadarrak entzun ziren
suaren kontra
lekaioak suaren alde.

Haizeak

Bere baitariko zeragion su
azkarra zen.

Bat baterako argi beroak
jo ginduen ta itzul arazi.

Zaharkinei atxikiz, aitareneko
ganbara ta ate-osteko
ezertarako ez zen oro
erre zuen
ta argia sartu etxean.

Erreturan
belar berria erne da,
garia, bideak,
ihardun-poza.

“Nire aitaren etxeak
iraunen du
zutik”, darantzuio
“HARRIZKO HERRI HAU”
beteko erantzunak.³⁹

³⁹ Agiriak, *Euskal poetak eta artistak G. Arestiren omenez*,
Donostia, 1978, 98-101. or.

EZ DU aldiak
gure errukirik.
Zerbait ganorazko
egin nahiz, gu;
ganorazkorik ezer
egin ezinez gu;
ez geldi, larri
gu; geure nahien,
geure asmakuntzen
mamitze hurbila
lortu-lorretan gu
hari gabeko ardatz
itsuan. Ez du
aldiak gure
errukirik. Badoa.
Ez da geratzen
Ez digu laguntzen
Ez itxaroten.
Bertan behera gaitu
uzten, lan eta lan
lan laban aurrerapen
gabekoan, gero ta
atzerago gero ta
esperantza gutxiagoz
gero ta hutsago.⁴⁰

⁴⁰ *Denbora galdu alde*, 110. or.

HEMEN

euskaldun izatea bezalako

gudaririk ez dago.

Hemen euskaraz irakurri

eta euskaraz idaztea bezalako

iraultzailerik ez dago.

Hemen

euskara indartzea bezalako

indar politikorik ez dago.

Hemen ez dago

euskara adinako desafiorik

inperio zurrupariaren

aurka.

Hemen ez dago

euskara adinako

askatasunaren aldeko

itxarobiderik.⁴¹

⁴¹ *Denbora galdu alde*, 113. or.

TXIKITATIK jarri zuten lanean.

Orduz gero ez du egin
lan eta lan besterik.

Berrogeitahamalau urte ditu,
aski denbora,
berberak egin lanen oroitzapena galtzeko.

Ibili izan den parajeetako
apunterik hartu ez duenaren antzeko da.
Noizak ez du fetxa ziurrik
eta egin izan dituen zereginak
ia identifikagarri ez diren hondakin halakotan
bihurtu ditu ahanzturak.

Hartan eta horretan ilusioz ihardun izanaren
akordu-antzeko asko ditu.
Eginbeharraren eginbeharrez astrapalada gehiegiz
ibili izanaren oroitzapenik ere badu.
Inondik inora zuzenduezineko okerrak ditu
bizienik gogoan.

Gustora eseriko litzateke bide-bazter batean,
berberak egin duen bidearen ertz batean,
esaterako, hantxe egon eta egon egiteko.⁴²

⁴² *Denbora galdu alde*, 122. or.

EGUN onak bildu.
Egunen artean
onak aukeratuz joan
alez ale.
Begiak zoli erabili
egun bakoitzari ongi
begiratzeko.
Egun bakoitzari
bere balioa ematen ikasi.
Egun bakoitzari
bere alde ona bilatu.
Egun bakoitza
dohain berri bezala hartu
ahalbide berriz zabaltzen den
zabalduz doan mirarizko jauregi edo
paraje zoragarri bezala.⁴³

⁴³ *Denbora galdu alde*, 157. or.

BAKEA, ONGIA TA

onespena denoi,
Jaunagan pozez pozten
zareten guztioi
eta hurkoen arduraz
bizi zaretenoi,

bakea, ongia ta
onespena denoi.

Bakea, ongia ta
onespena denoi,
pobreen aldeko kezakak
bizi zaituztenoi
ta justizia sendo
maite duzuenoi,

bakea, ongia ta
onespena denoi.

Bakea, ongia ta
onespena denoi,
barkatzen duzuenoi
ta bakezaleoi
ta zintzo, otzan eta
xalo zaretenoi,

bakea, ongia ta
onespena denoi.⁴⁴

⁴⁴ *Gabon dut anuntzio*, 130-131.or.

BIZITZA ITXAROPEN DELAKO

landatzen ditut zuhaitzak.
Eta haritzak landatzen ditut
insignisak baino,
nekezagoak baitira
pinuak baino haritzak,
haurtzaro luzeagoa baitute
pinuek baino haritzek,
eta pinuek baino
gaztaro luzeagoa.
Itxaropenera ari dut joko
itxaropen haritzezkoz.
Eskuan dut esperantza
eta *hor dago* diot
eta ateratzen dut haritza
pinudiko itzal beltzetik
eta jartzen dut edozein
toki egokitan, zerura
edo gerora begira.
Bai, Jauna. Bizitza
itxaropen delako
landatzen ditut haritzak
eta irakasten dut euskara
desesperantzaren morroi
direnen arrazoi
desesperantzazko
pinudi guztiak gorabehera.⁴⁵

⁴⁵ *Ahotsik behartu gabe*, 71. or.

Kaioa

Zeu zara zu kaioa,
inurri pilatzaileen
bizitza narrasetik
aidera jaiki zinen
Gabriel lumaduna!
Zeu zara zu aingeru
Gabriel hegalaria
beti aideko, gauzak
beren betean, juxtu
poetikoki beha
daitezkeen puntu hartan
ireki kokatua:
zuri, urdin, beltz duzu
lumaren kolorea,
urdin-berde begiak,
mokoa gorrikara,
hotsa gizatiarra
eta barre dagizu
eta negar dagizu,
on puska handi horrek,
eta bihotza eta
arima darizkizu
Gabriel, lumaz behera,
zerua, ura, lurra
hunkituz, dardaraziz.⁴⁶

⁴⁶ Zurgai, Dic./92, 50. or.

ARANTZAZU dut kantagai
bera dut bizitza
eta Arantzazu dut kantagai
hementxe bizi naiz fraile.

Hona deitu ninduzun
hemengotu nendin
hemengotu nintzaizun
hemengo egin.
Bat nauzu harkaitzekin,
bat elorriekin,
bat bera Arantzazu den guztiarekin.

Heriotzarekin biok besoz beso
heriotzarekin nabil egunero
elkarrekin etsi genuenez gero.⁴⁷

⁴⁷ *Euskaldunon Egunkaria*, 2001-02-22, 43. or.

EGUNGO eguna, egun ederrena.
Egungo arnasa, arnasa behinena.
Egungo argia, argi sotilena.

Egungo ogia, ogi gozoena.
Egungo ura, ur gozagarriena.
Egungo denbora, aldirik onena.

Egungo aukera, une apartena.
Egungo duguna, dugun hoberena.
Egungo garena, onargarriena.⁴⁸

⁴⁸ www.ueu.org/euskaraz, 2001-04-10.

HERIOTZARA noa muturrez aurrera.
Nahi banu ere ezin egin atzera.
Trantzeaz gogoratzen naiz, noizik noizera,
ikusiz nola martxan nihoan gainbehera,
astun, erorbera
uraren antzera,
behera eta behera
unetik unera,
behin honez gero malo,
laster lurrera.⁴⁹

⁴⁹ Arantzazu, 815, 2001-Apirila, 23. or.

SINESTEN dut bizitza,
pozten nau bizitzak
poz betirainokoz:
Piztu da Jesukristo
sekuletako poz.

Sinesten dut bizitza,
hari zor natzaio,
hari eskerrak naiz;
arretaz dut zainduko,
ospatuko dut maiz.

Sinesten dut bizitza
betirako dohain
alai ta galanta;
badut zertan gozatu,
bai-eta zer kanta.⁵⁰

⁵⁰ *Egunkaria*, 2001-05-30, 43. or.

BIBLIOGRAFIA

- "Nere ama jazten", *Euzko-Gogoa*, 11/12, 1952, az.-gab., 4-5. or.
- *Elorri*, EFA, Oñati, 1962.⁵¹
- *Hiru gizon bakarka*, Gero, Bilbo, 1974.
- *Uda batez Madrilen*, Jakin, Oñati, 1977.
- "G. Arestiren aitormenetan" in *Agiriak*, *Euskal poetak eta artistak G. Arestiren omenez*, Donostia, 1978, 98-101. or.
- *Denbora galdu alde*, Erein, Donostia, 1985.
- *Gabon dut anuntzio*, EFA, Oñati, 1986.
- "Kaioa", *Zurgai*, Dic./1992, 50. or.
- *Ahotsik behartu gabe*, Erein, Donostia, 1997.
- "Arantzazu dut kantagai", *Euskaldunon Egunkaria*, 2001-02-22, 43. or.
- "Egungo eguna, egun ederrena", www.ueu.org/euskaraz, 2001-04-10.
- "Heriotzara noa muturrez aurrera", *Arantzazu*, 815, 2001-Apirila, 23. or. (Pello Zabalaren "Naturatik Aitarengana" artikuluan).
- "Sinesten dut bizitza", *Egunkaria*, 2001-05-30, 43. or.

⁵¹ *Elorri* zein *Hiru gizon bakarka* liburuei buruzko oharretan agertzen diran orrialdeak bigarren edizioei dagokiez.

AURKIBIDEA

| | |
|---|----|
| 1. Neure ama jazten | 12 |
| 2. Ementxe dago arkaitza | 14 |
| 3. Neure itzaren bila | 15 |
| 4. Arkaitzeko elorria | 16 |
| 5. Ba-zoaz ta ba-zatoz | 17 |
| 6. Zarpil | 18 |
| 7. Arkaitzez gora, elorri | 19 |
| 8. Xirimiri txanka meia | 20 |
| 9. Iturritik ur eta ur | 21 |
| 10. Iturri menditarra | 22 |
| 11. ...T'euria | 23 |
| 12. Begiratu dot, ta, isiltasunak | 24 |
| 13. Poematxuok ba-doaz | 25 |
| 14. Urrundik naiatortzu | 26 |
| 15. Arrizkoa zara | 28 |
| 16. Lur busti au pozik | 29 |
| 17. Lurrezkoak gara | 30 |
| 18. Gauzak, Jauna, pozik dagoz | 31 |
| 19. Arima | 32 |
| 20. Joango naz | 33 |
| 21. Koruko gerizpe | 34 |
| 22. Udagoen-usaiña | 35 |
| 23. Landa orlegian | 36 |
| 24. Gurari-itxasoko | 37 |
| 25. Begian jaio zan | 38 |
| 26. Baina gu | 39 |

| | |
|--|----|
| 27. Kezkatzen bait nau | 40 |
| 28. Esperantzari leiho bat | 41 |
| 29. Hitz urri batzuk | 42 |
| 30. Tiriki, tauki, tauki | 43 |
| 31. Lurrean | 44 |
| 32. Elgea mendiko | 45 |
| 33. Hilgo naz | 46 |
| 34. Lurra hartu dut esku barruan | 47 |
| 35. Kantagairik asko, baina | 49 |
| 36. Euskarak ez du errurik | 50 |
| 37. Baina ikusten zuen gizona | 51 |
| 38. Baina gizona galdu egin zitzaidala | 52 |
| 39. G. Arestiren aitormenetan | 53 |
| 40. Ez du aldiak | 55 |
| 41. Hemen | 56 |
| 42. Txikitatik jarri zuten lanean | 57 |
| 43. Egun onak bildu | 58 |
| 44. Bakea, ongia ta | 59 |
| 45. Bizitza itxaropen delako | 60 |
| 46. Kaioa | 61 |
| 47. Arantzazu dut kantagai | 62 |
| 48. Egungo eguna, egun ederrena | 63 |
| 49. Heriotzara noa muturrez aurrera | 64 |
| 50. Sinesten dut bizitza | 65 |